Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Etxarri

Aurkibidea

Udalerria: Etxarri

Sarrera



Zuberoako udalerria, Pettarra eskualdean. Donapaleuko kantonamendukoa da eta hurbil dago hiriburu horretatik. Etxarri muino txiki ugarik osatutako eremua da. Berez Zuberoa izan arren, Etxarriko euskara behenafarreratzat jo daiteke.

- **Biztanleak**: 126
- **Euskaldunak**: %59,02

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **29**
- Transkribatutakoak: **10**

- Audioak: **0**
- Bideoak: **10**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika

Hizlariak



Jean-Pierre Charo (1952)

Pettara eskualdeko Etxarrin sortu zen eta herri berean bizi izan da. Laborantza Eskola batean egin zituen ikasketak, Biarnon. Etxarriko auzapeza zen elkarrizketa egin zitzaionean.



Cecile Etxeberri (1929)

1929ko 'arramaiatzean' (ekainean) jaio zen, Etxarrin. Gazterik galdu zuen senarra eta berak atera zuen aurrera lau seme-alabako familia.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Lau seme-alabako familia altxatu du

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/001
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1929ko arramaiatzean (ekaina) jaioa. Gazterik galdu zuen senarra eta berak atera du aurrera familia. Lau seme-alaba izan ditu.

Transkripzioa
- Eta nola deitzen zara?
- Ni Cécile, "Xexil"... "Xexil".
- "Xexil"?
- Ba.
- Eta e...
- Etxeberri.
- Etxeberri. Eta noiz jaio zinen?
- Nola?
- Noiz jaio zinen?
- Ze erran nahi du?
- E...

- "Sortia"?
- Hori, bai.
- Sortia? Ni... eta... arramaiatza, "arramaiatza" guk erraiten dugu...
- Bai.
- "Juin"... eta...
- Bai, "arra...", "arramaiatza" da, "juin"...
- Arramaiatza... bost... hogoita bostian, eta mila bedeatzi eta hogoita bedeatzian.
- Mila bederatzi ehun eta hogeita bederatzian? Eta zu...
- Ari niz aitzina e!
- Bai, bai, baina burua ongi, e?
- Oono ba... oono ba! Oono ba...
- Eta bizi zara Etxarrin?
- Bai, hemen bai.
- Etxarrin?
- Bai.
- Anitz euskaldun...?
- Hemen... hemen altxatu dut ene familia, bakarrik, senarra gazteik galdia beitut...
- A bai e?
- Badu berrogoita hamar urte... o(ai) fitesko..., eta... lau haur banitien, eta ene lau(r) haurrak heen altxatiak ditut, eta oai denak joanak dira.
- Denak joanak?
- Bizitzia hola da...

2. Euskara

2.1. Galdutako euskara berreskuratzen seme-alabak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/003
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:01:28. **Bukatu**: 00:04:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: 50 urtetik gorakoek euskaraz mintzatzen dute Etxarrin; baina gazteek ez. Eskolara kampora joaten dira haurrak (Donapaleura batez ere) eta horregatik galdu da euskara. Bere seme-alabek euskara baizik ez zekiten eskolan hasi zirenean. Eskola-barnetegian sartu zituen gero eta han galdu zuten euskara. Gerora batzuek berreskuratu dute.

Transkripzioa
- Anitz... anitz euskaldun da, hemen? Etxarrin eta...?
- Etxarrin...
- Euskaldun anitz zarete?
- Ba, ba, pixka bat oono. Gaztetan, ez sobera. Ez, gaztiak ez, bana bon, ene adinetakuak eta ba ondokuak e, e... berrogoita... berrogoi... berrogoita hamar, hirutan hogoi urte hortan, oono eskuara mintzatzen dute, ba.
- Bai.
- Bana gaztek ez, ez...
- Ez?
- Ez bizi(ki)...ez.
- Eta zerengatik hori? Zuk...?

- Bo... zeen... zerengatik? Joan dira gaztiak ekoletaat... Lehen, eskola herrian e egoiten zen, eta... Bana oai e... eta... herriko eskola goizik eta... banatzen dute, eta gero joiten dira bestetaat. Ta han... han galtzen dute, gio. Ene... ene haurrek´e... Ttipian, eskuara beizik ez zuten emaiten... Ene seme gehienak, [...] Amaiain aitak, eskolaa joan da sei urtetan, ez zakien frantses mikoik! Errienta behar e, eskuara beitzakien konpreniaazteko, bena... eta geo bestiek´e, bena gio, eta... bon nik e... behar beinien lanian ari, eta haurra altxatu, eta kolegioan ezarr... ezarri ditut /ezarritut/ goizik... mutikuak. Hiru mutiko gintien gehienak. Eta gio alaba. Eta han galdu zuten gero eskuara.
- Bai, ez da?
- Gero, oai e... Johañe zen hua, Amaiain aita, hua ere izan e ikasten eskuaran, e... bigarrena ez, hua Biarnoat joana da, eta konprenitzen du bena ez emaiten, eta hirugarrena Doni(b)ane aldian dut, hua´e ari da... emaiten du eskuara untsa zeen eta laguna e... laguna e... eskuara ikasle du, ez andereño, bena püblikoan emaiten ditu eta eskual, eskuarazko kurtsak.
- Bai.
- Eta ordian haekin, eta haurrek´e badakite eskuara, haurrak ikastolan izanak dira, eta ... dena. Eta alaba hemen bizi du kantian, emaiten du pixka bat, bena ez kurrenki, ez du [...] einen. Konprenitzen ditu denak, bana ez du emaiten... gustian hots.
- Ba zorte handia duzu, hor alaba edukita!
- Nola?
- Erraten dut e... ongi zarela...
- A bai, bai, bai!
- Hor alaba baldin baduzu...
- Alaba heen dut, Donapaleüko bide hortan, hor zola hortan egoiten da. Eta Baionan ari da eskolan.

2.2. Donapaleuko ikastola Iparraldeko lehenetarikoa

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/005
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:05:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Donapaleuko ikastola izan zen iparraldeko lehenetarikoa; duela 40 urte ireki zen. Xexilen gazte denboran debekatuta zegoen eskolan euskaraz egitea.

Transkripzioa
- Eta nora... nora joan dira? Non izan... Non da ikastola?
- Donapaleün.
- Donapaleun?
- Donapaleün, ba. E... Donapaleüko ikastolak... berrogoi urtiak ein tu /ditu/, pestatu tu /ditu/ aurten.
- A...?
- Badu berrogoi urte.
- Oso ondo, oso ondo!

- Bai, bai. E... hemen zen lehen... lehenetaik zen Donapaleükoa. Gio Doni(b)anen zabaldu zuten, eta gero bai, Hazparnen ta denetan, bana dena, lehenetaik zen Donapaleükoa.
- Bai.
- Zuk maite duzu euskara?
- Bai, maite dut!
- Asko! Guk ere bai...!
- Bai, bai, bai, bai.
- Eta lehenago, hemen, herriko eskola hauetan eta euskara irakasten zen?
- A ez! Defendiak ginen! Pünitiak ginten eskuaraz ari baginen!
- Bai e?
- A bai... gure jenerazionia hola da...!

2.3. Zuberotarrez zein manexez, bietara hitz egiten du Xexilek

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/007
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:08:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Etxarri, mapetan Zuberoan agertu arren, Donapaleuko kantonamendukoa da. Salerosketak ere hiriburu horretan egiten dituzte. "manexez" hitz egiten da, amikuzeraz, baina Xexilek familia du Zuberoan eta bi euskalkietan ondo moldatzen da. Amak zuberotarrez egiten zuen.

Transkripzioa
- Hau Xiberoa izanik, nolatan mintzatzen da manexa?
- Eta... kartan, "La Soule", Xüberua, heltzen da Domintxiñe artio.
- Bai.
- Bena gu, Arüe-Etxarri, eta Arüe, ondoko herria, Donapaleüko kantonamentian gira.
- A...
- Eta ordian Donapaleüat gu e... joaiten komertxaindako eta merkatiendako, eta.... denendako. Eta aldiz, Arüetik landa, Sarrikota bita, "Charritte-de-Bas", hek, Mauleat ari dira. Ordian hortik aitzina, xüberoa emaiten düte hemen... hemen beno... hobeki... Guk manexa dugu hemen. Bai, bai, bai. Geo nik emaiten dut e, xüberotarra ere, xüberotar batekin ari niz biziki aisa xüberon, sanarra hanko beinien. Familia beitut, eta famiain... eta... senarrain familiaekin beti iziarri... barda izan beiniz, eta ordian xüberoa emaiten düt, ontsa.
- Bai?
- Bai, bai, bai.
- Bietara dakizu?
- Ba, ba, ba, ba.
- Baina zuri, amak, e... txiki... ttipitan, erakutsi zizun manexa edo...?
- Ba, ama ere, e... eta aisago emaiten zien xüberoa. Arüetarra zen ene ama...
- A bai?
- Ondoko hortan.
- Bai.

- Eta hak´e, bere familia, bere aita-ama eta horiek, Xüberotik jinik zien horrat, eta ordian e... nik beno xüberotarrago emaiten zien kurrentian. Bai, bai. "Oui, oui".
- Orain, gehienek manexa?
- Oai, gehienek ba. Ba, ba, ba. Geo, aisa da e konprenitzia...
- Bai, manexa, bai.
- Ba, ba, ba...
- Oso... oso garbi, oso...
- Ba, ba, ba. Ba, ba, ba.
- Eta Arüen ere, manexez, ez da?
- Ba, ba, heen bezala... heen bezala, ba. Ba, ba.
- Eta Domintxainen ere, eta...
- Ba, ba... ber gauza. Ba, Domintxi(ñe) eta Dona... Donapaleüko ingurü horiek, dena...
- Dena manexa?
- Ba, ba, ba.

2.4. Bearnesa euskara baino galduago

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/017
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:24:58. **Bukatu**: 00:27:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena**: Bearnesa euskara baino galduago dago. Euskara ari da pixka bat berpizten, baina bearnesa ez. Bere alabaren familiaren kasua azaltzen du. Espiute (alboko herria) Azpilda da euskaraz. Bearnoko herrien zenbait izen euskaldun. Etxarrin ere badira bearnesak, ezkontzaz etorriak.

Transkripzioa
- Eta... bestela, bearnesa euskara beste hitz egiten da, edo gutiago?
- Bo, biarnesa're galdia da e biziki. Ba, ez dira /eztia/...
- Euskara baino gehiago edo...?
- Ba, gehiago...
- Bai e?
- Nik uste, ba. Zeen eta eskuara ari da berriz... badira eta kurtsoak eta hola... bena biarnesian ez da /ezta/ e...
- Ezer ez?
- Ez...
- O, pena da...
- E... den... egoiten dena zaharren... zaharren zera da, bena... Nik badut seme bat ezkon... ezkondia Paue kantian, han, eta hua, emaztia, hango da, bena ez daki /eztaki/ e... Ez daki /eztaki/... Aita, aita-amek emaiten dute oono, eta... "le patois", bena ez ene alabak, ez.
- Alabak ez?
- Ez. Konprenitzen, ba, [...] bena... eta oono ez dakit /eztakit/ konprenitzen dienez...
- Eta horiek badute izen euskaldunik: "Espiute" eta horiek... eta...?
- "Espiute", "Azpilde"...

- "Azpilda"?
- Ba, "Azpilda", ba.
- Eta gero "Arribalda" eta holako batzuk ere [...], "Charre" eta hola ez?
- "Charre... Charre", "Xarre", "Nabas", "Nabarzi" erraiten dugu... e... "Rivehaute", "Arribahaute", eta gero, zoin da hor...? Gero ez, Eskual Herria da.
- "Jeztaze" ez? Hori ere Xiberoa da...?
- "Gestas", bai, bai, Xüberoan da, "Jestaz", ba.
- [...] Xiberoan?
- Ba, ba... bena bon, ez da /ezta/ eskualdunik e' gehio han. Ez... Ez.
- [...] hola denbora batean edo... igual mintzatuko zela hor euskaraz.. Orain dela aspaldi edo...?
- Bai, seurra ba, ba, ba, seurra, izan zen, ba. Bena gero... gero bon, ezkontzaz eta, biarnesak sartu dira ta... hemen e' bada biziki familia biarnesekin esposatzea hunat...
- Bai e?
- Ba, ba.
- "Enfin" biziki, ez dut /eztut/ erranen biziki, bena e... bat, bi, hiru dia bai. Hiru. Ez da /ezta/ biziki bena...

2.5. Euskararen aurkako euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/019
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:27:14. **Bukatu**: 00:28:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena**: Bada jendea euskara jakin arren, euskararen aurka dagoena. Kantuz aritzen dira harro, baina gero euskararen alde zerbait egitea proposatzen zaienean ez dute ezer jakin nahi.

Transkripzioa
- Eta geo maleuski badira eskuara maite dutenik, eskuara emaiten dutenik, bena bada gauza bat, ez dakit /eztakit/ konprenitzen duzienez zer den eta... frantsesez erraiten da "les anti-basques primaires"...
- A bai, bai, hori bai [...]
- Holako badira, andana bat!
- Andana bai? O, pena da...
- Pena da, bai. Pena. Pena da zeen eta ez baitakite /ezpaitakite/ berek zendako. Eskuara emanen dute, e... apairu batean eta fier izanen dia, kantuz aritzeaz, ni eskuaraz, eta hau ta hua! Bena e... jiten delaik mementoa eskuarain defendatzeko, edo haurren ikastolan ezarteko, eta a...!

3. Baserria

3.1. Laborantza Eskola

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex

- **Erref**: ETR-002/008
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:08:18. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Hurbil den Laborantza Eskolari buruzko komentarioak. Kanpoko jendea etortzen zen (Aveyron, Correze...), bizitza zaileko laborariak. Orain beste bide bat hartu du eskolak

Transkripzioa
- Eta hor, baduzue gaztelu handia, jauregi handi bat...
- Bai.
- Hor, Arüe da hori, ez?
- Ez, Etxarri da.
- Etxarri da?
- Limitan da e... limitan, bena Etxarriko partian da. Hori ere eskola bat da oai. Eta hasi zen e... zonbat urte? Puf... [...] Urtiak juiten beitira! Hogoita hamar bat urte? Mentüaz. Edo gehioxot berdin. Hasi zela hor, eta... e... "pour les adultes", jende gehi... gehienendako... Eta... e... "BTS agricole" hasi zen hor, e... beitzen biziki "agriculteur" nuntik nahi jiten zienak e. Eta uzten bitzuten bere laborantxagoa, eta... eta behar beitzuten "recycler", "comme on dit", nola, eskuaraz...
- Bai.
- Eskuaraz ez dakit nola erraiten den... beste zeitetan ar(i)tzeko. E... heldu zien biziki "de l'Aveyron" eta... "la Corrèze", eta kartier hoitanez beitzen bizi... bizi moldia ez beitzen... ez beitzen aisa bizitzia laborantxatik, laborantxa peniblia beita e... eta "montagne", "enfin" bortia, bortüzale eta hola, eta ordian bizikik uzten zuten laborantxa eta sartzeko kooperatifan, edo zeitetan, eta behar zuten egiazko... diploma hori, "le BTS". Eta ordian, hola hasi zen. Partetik, hola. Eta gio, beste parte bat zen "du social". "Pour le... pour le... faire des... euh... pas assi...", ez "assitante sociale" ez, bena... e... oai... "pour faire... dans le so... pour entrer dans le social...", e... ez dakit ze ofizio eiten zuten... "Enfin" bi formazione bazien.
- Bai.
- Geo, oai ez da gehio, zeen eta ez da gehio eta adinetako jendeik, eskolaat joaiten denik, oai "BTS agricole" edo hori eiten dituzte /tuzte/ eskolan ..., eskolako adinian, eta ordian ez da gehio eta... jendeik e... formazione horren eiteko, ordian hua... hua erori da, ez da gehio. Bena oai eiten dute e... formazione xuxen ez dakit, bena "pour la réinsertion", "des"... eta... jende batzu ez balin badira aisa eskoletan ari, edo "pour"... orientazione berri zunbaiten emaiteko, e... "pour l'aide à la personne", eta holako hoitan.

4. Iritziak

4.1. "Behardunia, jaun haundia"

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Senarra hil zitzaionean, trebetasun batzuen jabe egin eta lanean hasi zen hiru herritako idazkari gisa. "Behardunia, jaun haundia" esaera bada Zuberoan, beharra denean ez omen dago hauturik.

Transkripzioa
- Nolako bizimodua, nola bizi zara egunero? Zer...?
- Ni? Ni, bon, senarra galdu-ta, senarra "inséminateur" nien, laborantxan e, "inséminateur". Eta geo bon, gazteik galdu dut, eta nik ez nien ofizioik. Ni "femme au foyer", ene haurrekin, senarrain telefonoaekin, eta hola, bon. Eta ordian, eta [...] zen hartaik fite, leku bat hemenko merian sartzeko sekretario bezala.
- A bai?
- Ordian hasi nintzan hortan, sekretarioain eiten, gio ondoko herrian, berriz, eta Posta, sektretario Posta libratu zen, hua ere hartu nien, eta Donapaleü aldian´e beste bat. Ordian hiru ho... herri horien sekretarioa egin dut ene bizi denboan.
- Oso ondo!
- Erretretala artio.
- Oso ondo, oso ondo.
- Erretretala artio.
- Oso... oso emakume kementsua! Indartsua!
- O te! Beharra... beharra bezalakoik ez da e! Erraiten dizie Xüberuan "Behargünia, Jaun handia". Konprenitzen duzie?
- Ez! Nola... zer erran nahi du?
- Eta "behargünia"... hori konprenitzen duzie zer den?
- A bai. Bai, bai, bai, bai.
- "Jaun handia"... "un"... frantsesez erraiten da "un grand Monsieur".
- Bai, bai, bai... oso ondo.
- "Behargünia, Jaun handia"...
- Bai, bai.
- Ez beita hautuik haekin!
- Bai, bai, bai, bai.

5. Politika

5.1. II. Munduko gerra eta ondorioak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/011
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:15:06. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena**: II. Mundu Gerlan gizonek alde egin zuten, eta preso andana bat ere izan zen herrian. Ondoren, etxejabeek, beharrak eraginda, maizterrak kanporatu zituzten eta hauek ahal zuten lekura alde egin behar izan zuten. Etxe anitz hustu zen, biztanleria txipitu eta arrunt aldatu bizimoldea. Gehienak Donapaleu aldean berkokatu ziren.

Transkripzioa

- Eta nolakoa izan zen hemen Munduko Gerla? Bigarren Mundu Gerla, hemen nolakoa izan zen?
- E... Bigarren Gerla? Bo... Bazen...
- Gaiztoa?
- Ba, ba, bazen andana bat, ba. Gizonak oro, gizonak oro joan zien e, ta emaztekin ein ahal zuten bezala. Preso egon dira andana handi bat e. Xuxen e... zonbat preso... bazen nik uste hamar bat, edo... herri ttipia da hemen e!
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Eta preso, nik uste... ba hamar bat, edo... edo gehio. Hamabost bat ere [...]
- Preso?
- Preso. Egon ziren e... bizpalau... bost urte.
- Bai, bai.
- Ba, ba, ba. Ta gio artian emazteek ein zuten, eta ahal bezala! Gerla denboran...
- Ba, gero, gerla ondorena? Makurra?
- Gero, gerla ondoan, hemen, izigarriko...
- Gosetea?
- E... izigarriko... etxeak hustü dira.
- A bai?
- Zeren eta baziren eta... etxeko jaunak, etxeko jaunak baziren, eta etxetiarrekin eta... etxetiarrak beste etxe [...] "les métayers"... ez da / ezta/... ez duzu /eztuzu/ konprenitzen nor dien horiek?
- Badakit frantsesez zer den "les métayers".
- Eta... etxeko jaun batek bazien bere etxea...
- Bai.
- Eta geo bazitien lurrak, eta beste etxe batzu ere. Eta beste etxe haitan bazien familiak...
- Bai...
- Lanian ari zienak lur haitan.
- Bai...
- Eta beren eta... errebenioa, erdia emaiten etxeko jaunari.
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, ulertzen dut. "Maizterrak" ez, edo...?
- "Voilà".
- Bai, guk ere, hori...
- Ba.
- ... antzerakoa.
- Ordian, hori e... zen... gerla aintzinian hola zen. Eta gio, gerla ondotik, zeen eta etxeko jaun han... han... hendako 're, bizitzian neke [...] zen... Eta behar izan zituzten /zuzten/ e... ez zien sobera lanian ari ere [aiduru zien] etxetiarrek ekar zezaten beren zera. Bena nekezia jin zelaik, behar izan dituzte /duzte/ berek lurrak hartu, eta... errekolten egiteko, eta etxetiarrak [...] eta kanpoan ezarri dituzte /tuzte/. Ordian joan dira, eskuin, exker, e... langile, eta ahal zuten lekürat... Eta gisa hortan etxeak eta... etxeak hustu dira. Eta hor da... popülazionea 're ttipitu, eta haurrak e' ba ttipitu, zeen eta familia heitan beitzen gehienik haurrak, eta arrunt e... kanbiatu da herriain e... nola erranen dut? Potreta...
- Bizimoldea?
- Ba, bizimoldea, "voilà".
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Jo... pena da.
- Ba, ba. Pena da, ba.
- Eta joan ziren Bordelera, edo Pauera, edo...

- Ez, ez! E... hemen... hemen Donapaleün... Donapaleün, "Donapaleü" "Saint-Palais".
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Bon, koperativa monta... montatü zen ordian langiliak hartu zituzten / zuzten/ langiliak sartu zien horrat, bazen ere, usina ttipi bat bazien ordian, eta bazen e... "une usine"... eta kausüra egiteko usina ttipi bat bazen ere, oai hutsa da hua 're bana bon, lana hatzaman zuten hemen halere. Ez zien e... gazte zonbeit joan zien Parisea, bena haboxia, bestela gehienak hemen egon zien ba, kartierian hots.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Egiazko apez ona dute

- **Hizlaria(k)**: Etxeberri, Cecile
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ETR-002/013
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:19:52. **Bukatu**: 00:22:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Apaiz batek 10-13 eliza eramaten ditu; Etxarrin hilean pare bat aldiz izaten da meza. Inguruko herrien berri ematen du. Behaskane asko handitu da azken urteetan. Euskaraz eta erdaraz nahasian izaten dira mezak. Egiazko apeza dute, oso ona.

Transkripzioa
- Eta hemen meza edukitzen duzue, igandetan?
- Bo, hilabetian aldi bat edo bietan...
- A bai e?
- Domintxinen dugu eta Jaun Ertora...
- Bai.
- Domintxaiñen.
- Bai.
- Eta baditu hamahiru eliza bere peko. "Enfin" ttipiak eta handiak e. Eta ordian... ordian emaiten ditu... mezak emaiten ditu /emaitentu/ e... iandian... iand... iakoitz... iakoitz aatsetan bada bat, eta gio iandetan biga. Ordian... eta ingurikatzen ari da. Bena hemen, ba hilabetian bietan edo hola... Ondoko herrian ere beste hanbeste. Domintxiñen gehioxot, zeen eta Domintxine handiao beita, herri handia beita. Ba, doblia badu, edo gehio Etxarritik. Gehio, ba. Ordian e... badu Domintxiñe herri handia, Behaskane herri handia, zeen eta bada Behaskanen biziki etxe berri eginik, egin beitzuten e... oai diela hogoi bat urte, edo oai gehio... gehio. Eta lotizamendu bat, ordian Donapaleüko, Donapaleün ari zien langile biziki [...] zuten hori, bada popülazione bat... Behaskanen. Eta gio bada Arberatze, eta Arboti - "Arbouet" eta "Arbérats" - eta heen... han´e bada biziki etxe berri eginik...
- Bai. Bai, hori ikusi dut, bai.
- Bai, bai.
- Eta Aiziritzen da hor ere...
- Ba, hor ere ba, ba, ba. Aiziritze ez da /ezta/ gure apezain peko. Bena Arboti eta Arberatz ba.
- O Arboti ere bai?

- Ba, ba.
- Eta meza euskaraz edukitzen duzue edo frantsesez?
- Bo, bietaik egiten du. Erdiz [...] Bere... bere gustuz, eskuaraz beizik ez lio egin. Izigarriko apez goxoa dugu.
- A bai e?
- A bai, izigarrikoa! Eiazko... eiazko apeza... Maleruski ez du /eztu/ sobera osaarriik, ordian ez da /ezta/... ez du /eztu/ egiten ahal nahi ditiena, bana eiazko apez barnakoa da.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Biografia txikia (ETR-001/002)

Paue ondoan egin zituen laborantxako ikasketak. Orain Etxarriko auzapeza ere bada, kontseiluan urte askoan parte hartu ondotik.

2. Etxarri herriari buruz (ETR-001/003)

Herri txikia baina polita da. Orain Herri Elkargoan ari dira lanean. Bere ustez, herria galtzen joango da emeki-emeki eta erakunde orokorrago horrek indarra hartu. 128 biztanle dira. Donapaleuko periferian dagoenez, ez da jende asko heldu kanpotik. Zuberoa da baina Donapaleura begira bizi dira.

3. Etxarriko euskara (ETR-001/004)

Nahasketa dute. Alde guztietako euskara ulertzen dute, baina Sarrikotapean hasten da aldatzen nabarmenki.

4. Etxarriko jauregiak (ETR-001/005)

Lehenago laborantxako "BTS" eta "Moniteur Educateur" tituluak ateratzen ziren bertan, baina orain lehenengoa gelditua da. Urrundik etorri izan dira ikastera. Dubois jaunarena zen gaztelua, eta elkarte bati utzi zion hezkuntzarako erabilia izan zedin. XX. mende hasierakoa da. Historia handiagoko beste jauregi bat bazen ondoko auzo batean, baina jabeak bota egin zuen.

5. Etxarriarren lanbideak (ETR-001/006)

Laborantxatik laupabost familia bizi dira, batik bat artotik eta behietatik. Prezioak behera ari dira eta gastuak edo fresak goiti, beraz zaila ari da bilakatzen bertatik bizitzea. Eskerrak sos laguntzei. Artisauak ere badira, maisturu, hargin, etab.

6. Etxarriko eskola (ETR-001/007)

Eskolan lau herri ari dira batera, Arboti, Arberatze eta Etxarriren artean. Ondoren Donapaleura joaten dira. Frantsesez ari dira. Bera elebidunez ikastearen alde da, baina ez zen batere aise eta bozkaketa egin zelarik ezezkoa atera zen. Hala ere, Donapaleun ikastola dago.

7. Euskararen egoera (ETR-001/008)

Euskara gibelerat ari da. Zahar guztiek ematen dute euskara. Alta, Gazteek ulertzen dute baina ez mnitzatzen. Ez dira konturatzen euskararen balioaz, eta oso okupatuta daude. Euskaltzaletzat du bere burua. Gobernuaren politika ez da behar adinakoa euskararen alde, baina hobetzen ari da. Ez da historia ahaztu behar bere iritziz.

8. Euskara lehengo denboretan eskolan eta elizan (ETR-001/009)

Berea txikia zenean euskaraz ari zen etxean baina eskolan frantsesez, errientek ez baitzakiten euskararik. Zigorrak ere bazirela oroitzen da. Katixima ere frantsesez zen. Apaiz euskaltzale bakar batzuk baziren.

9. Euskara familian (ETR-001/010)

Semeek ez dakite euskararik. Anaiarekin eta amarekin beti euskaraz ari da. Gazteekin frantsesera lerratzen dira. Eskola da giltza bere ustez.

10. Auzapezaren lana (ETR-001/011)

Ez da lan zaila auzapeza izatea Etxarrin. Ez dute euren artean batere arazorik kontseiluan.

11. Herriko bestak (ETR-001/012)

Apirilaren lehen asteburuan dira herriko bestak. Musika, apaidu zenbait eta gauza gutxi egiten dira gaur egun. Gazteak gehiago mugitzen dira orain, ez lehenago bezala.

12. Haurren, gazteen eta adinekoen lekua Etxarrin (ETR-001/013)

Hamar bat haur daude herrian. Adinekoentzat ere bada elkarte txiki bat, eta hilabetean behin biltzen dira, eskolako kantina eta udako gazteen pilota-torneorako baliatzen dena, besteak beste.

13. Gazteak krolean (ETR-001/014)

Gazteak Rugby-an, palan, saskibaloian ari dira.

14. Arüe eta Domintxinekoekin harremanak (ETR-001/015)

Oso ondo konpontzen dira etxarriarrak arüarrekin, domintxindarrekin baino gehiago, apaiz bera baitzuten. Gazteak orain Donapaleura joaten dira guztiak

15. Erretreterako asmoak eta etxeko familia (ETR-001/017)

Ez da aspertuko erretreta hartzean. Semeari lagunduko dio, eta rugby-a eta pilota partiduak ikusten dibertituko da. Hiru seme ditu eta bik neska dute. Batek alaba ere badu. Gehiena eta azkena laborantxan ari dira, eta bigarrena asurantza batean.

16. Herriko etxerik zharrena (ETR-001/018)

1608. urteko etxean bizi da. Herriko etxerik zaharrena da. Altzari zahar batzuk ere baditu etxean, tartean züzülia izeneko aulkia.

17. Beheko sua (ETR-001/019)

Amañik beheko suan egiten zuen jana. Orain pixka bat modifikatu dute. Oso berotasun handia ematen du

18. Oihanak (ETR-001/020)

Oihanak badira inguruan, lurren hirutatik bat gutxi gorabehera. Ez dira oihan asko moztu. Haritza dago gehienbat, baina baita gaztainondoak eta lizarra ere. Etxe aurreko haritzak baditu 400 bat urte.

19. Euskal Herria eta Etxarri maite (ETR-001/021)

Oso gustora bizi da bere etxean, haritz artean, laborantxan. Itsasoaz eta Parisez aspertu egiten da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-06

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com